

DONNA LEON
HERIOTZARAKO
JANTZITA



HERIOTZARAKO JANTZITA

2

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jaurianitzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Jatorrizko izenburua:

Dressed for Death

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© 1994 by Donna Leon

© 1996 by Diogenes Verlag AG Zürich

All rights reserved

© Itzulpenarena:

Jesus Mari Laso

© EREIN. Donostia 2009

ISBN: 978-84-9746-546-5

L. G.: SS-1485/09

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

DONNA LEON
HERIOTZARAKO
JANTZITA

Itzultzailea: Jesus Mari Lasa

erein

erein argitaletxea

Heriotzarako jantzita

Donna Leon

*Arleen Auger,
eguzki ahituaren oroitzapenez*

erein argitaletxea

*Ah, forse adesso
Sul morir mio delusa
Priva d'ogni speranza e di consiglio
Lagrima di dolor versa dal ciglio*

Agian, une honetan
Nire heriotzagatik etsita
Itxaropen eta zuhurtasun oroz gabetua
Oinaze malkoak darizkio begietatik

Mozart, *Lucio Sila*

1



Zapata gorria zen, Londresko telefono-kabinak edo New Yorkeko suhiltzaileen ibilgailuak bezain gorria, baina ez ziren horiek izan zapata ikusi zuen gizonari otu zitzaizkion konparazioak. Aldiz, *Ferrari Testarossa* baten gorria etorri zitzaion burura. Hain zuzen ere, harakinen aldagelan zeukaten egutegiko Ferrariarena, zeinak neska ilehori bat baitzeukan, biluzik, kapotaren gainean etzanda, zeharo maitemindua, itxuraz, autoaren ezkerreko argiarekin. Alde batera erorita zegoen zapata, muturrarekin putzu beltz baten ertza doi ukitzen zuela. Izan ere, madarikazio baten antzera, petrolio istilez basituak zeuden hiltegi inguruko zelaiak. Hantxe ikusi zuen, bada, zapata, eta haren koloreak, harritzekoa ez denez, odola ere ekarri zion gogora.

Aspalditik zegoen han hiltegia, Marghera poligonoa loratu baino askoz lehenagotik, nahiz eta, beharbada,

“loratu” ez den hitz egokiena Italiako industrialde handienetako bat deskribatzeko. Artean ez zegoen petrolio findegirik edo produktu kimikoen lantegirik Veneziaren, Adriatikoko Perlaren, aurrez aurreko zelai zabal, zingiratsu haietan. Porlanezko eraikin zapal, itsusi bat zen hiltegia eta alanbre-sare garai batek inguratzen zuen. Aspaldiko alanbre-hesia zen, etxabereak, bideetako hautsak janez, hiltegira oinez eta taldean ekartzen zirenekoa, eta hesiaren orduko xedea, segur aski, animaliei ihes egiten ez uztea zen, kolpeka eta bultzaka eraikinaren barrura sartu aurretik. Orain, kamioietan etortzen ziren abereak. Ibilgailu erraldoiak atzeraka ahokatzen ziren horma garaiz hesitutako sarbideetan, eta ez zegoen, inola ere, ihes egiteko modurik. Argi zegoen, nolana ere, hesia ez zegoela begiluzeak urrun edukitzeko eraikia, zeren, nork hurbildu nahiko zukeen hara? Segur aski, horregatik ez zeuden konponduta urteen joanean alanbre-sarean egindako zulo handiak, eta batzuetan, gauzez, kale zakurrak, eraikineko kiratsak erakarrita, hesi-zuloetatik sartu eta uhurika aritzen ziren, barruan sentitzen zutenagatik irrikaz.

Hiltegia inguratzen zuten lur sailak hutsik zeuden. Esan zitekeen, lantegiek, odolaren tabu ahaltsua errespetatuz, ez zutela porlanezko eraikin zaharrera hurbildu nahi izan. Fabrikak urrun zeuden, esan bezala, baina haien jarioei, hondakinei, lurrera isurtzen zituzten jaria-kin pozoitsuei ez zitzaizkien tabuak axola eta, urtez urte, hiltegitik gero eta hurbilago zeuden. Lohi beltzak blaitzen

zituen zingirako belarren zuztarrak eta petrolio geruza iri-satu batek estaltzen zituen urtaro lehorrenean ere desagertzen ez ziren putzuak. Izadia zeharo pozoitua zegoen kanpoan, baina eraikin barruan gertatzen zenak izutzen zuen jendea.

Zapata, zapata gorria, alde batera eroria zegoen, hiltegiaren atzeko aldetik ehun bat metrora, alanbre-hesiarren ondoan, kanpotik, sastraka batzuen ezkerretera. Bazirudien sustraietaraino iragazten zitzairen pozoiak elikatzen zituela sasi haiek. Abuztuko astelehen bero batean, goizeko hamaika t'erdietan, gizon sendo bat, odollez blaitutako larruzko mantala jantzita, hiltegiaren atzeko fatxadako metalezko atetik eguzki galdatara irten zen. Atzean utzi zituen bero-sapa lurruntsua, kirats nardagarria eta marru etengabeak. Eguzki kiskalgarria zegoen, baina, kanpoan, gutxienez, abere-barruen kiratsa ez zen hain jasangaitza, eta zirkulazioaren hotsak –handik kilometro bat ingurura zegoen errepidea, Veneziara zihoazen turistaz lepo beteta– zertxobait moteltzen zituen hiltegioko balakak eta orroak.

Gizonak mantalean xukatu zuen esku odoldua –makurtu egin behar izan zuen, mantalaren barreneko ertzean zati lehor bat aurkitzeko– eta, alkandoraren poltsikotik, *Nazionale* paketea atera zuen. Plastikozko pizgailuarekin zigarroa pizturik, atxiki indartsu bat eman eta gustura xurgatu zuen tabako merkearen usain-zapore garratza. Makakorro erlats bat heldu zitzaion atzean zuen atetik eta

eraikinetik aldentzea erabaki zuen. Alanbre-hesirantz egin zuen, itzal bila, arkazi baten hosto erkinen azpira, zeina, ez gutxi sufrituta, lau metro ingururaino luzatua baitzegoen.

Hiltegiari bizkarra emanaz, Mestre aldera hedatzen zen tximinia basora begira geratu zen. Sugarrak botatzen ez zituztenek, laino gris-berdexkak jariatzen zituzten. Doi sentitzen zen brisa arin batek kea ekartzen zion aurpegira. Zigarroari beste atxiki bat eman eta lurrera begiratu zuen. Argi ibili beharra zegoen padura haietan, oina non jarri erabaki aurretik. Orduantxe ikusi zuen zapata, erorita, hesiaren kanpoko aldetik.

Zapata ez zen larruzkoa, oihalezkoa baizik. Zetazkoa? Satinezkoa, agian? Bettino Colak ez zekien ezer askorik gauza horiez, baina bazekien bere emazteak material hartako zapatak izan zituela eta ehun mila liratik gora kosta zitzaizkiola. Berrogeita hamar bildots edo hogeitazekor hil behar zituen berak diru hori irabazteko eta hark zapata pare batean gastatu zituen, behin jantzi eta armairu zokoan uzteko, gehiago begiratu ere egin gabe.

Ez zegoen, paraje higuinngarri hartan, atentzioa erakarriko zion beste ezer. Beraz, gizona, zapatari begira geratu zen, zigarroa erretzen ari zen bitartean. Pixka bat ezkerre-rago joan zen, beste angelu batetik ikusteko. Petrolio istil handi batetik oso hurbil bazegoen ere, lehorrean zegoela ematen zuen. Colak beste urrats bat egin zuen, ezker aldera, eta eguzki berotara irten zen: zapataren ingurua

miatu zuen, lagunaren bila. Belar artean, erdi estalita, forma luzanga bat ikusi zuen, zapata-zola bat izan zitekeena, hura ere eroria, itxuraz.

Bettinok zigarro-mutxikina bota eta oin muturrarekin zapaldu zuen, lur bigunean. Hesi ondotik pauso batzuk egin ondoren, makurtu zen eta zulo handi batetik pasatu zen beste aldera, kontu handiz, alanbre herdoilduekin urraturik ez egiteko. Behin alanbre-hesitik kanpora, zutitu eta zapata zegoen tokiraino etorri zen atzera; zapata pare zegoen tokiraino, hobeto esanda. Agian oraindik erabiltzeko modukoak zeuden.

—*Roba di puttana*—esan zuen berekiko, lehenengo zapataren takoia ikusi ordukoxe: poltsikoan zeraman zigarro-paketea baino ondotoxoz garaiagoa zen. Emagaldu batek bestek ez zukeen halakorik jantziko. Lehenengo zapata jasotzera makurtu eta kanpotik ez ukitzen ahalegindu zen, ez zikintzearren. Espero bezala, garbia zegoen, ez baitzen petrolio baltsara erori. Eskuineko aldera urrats batzuk egin zituen, berriro makurtu zen eta, bi hartzekin, beste zapataren takoiari heldu zion, baina ez zuen jasotzea lortu. Segur aski, belar zuztarretan katigatuta zegoen. Non jartzen zuen arretaz begiratu ostean, belauna lurrean bermatu zuen eta tira egin zion oinetako dotoreari. Zapatak amore eman zuen, baina Bettino Colak oin batetik askatu zela ikusi zuenean, atzeraka jauzi egin eta, ordura arte libratu bazen ere, putzu beltzera erori zitzaien lehenbiziko zapata.

2



Hogei minutu geroago heldu zen polizia. Mestreko *Squadra Mobile*ko bi patruila auto ziren, txuri-urdinak. Ordurako, langilez beteak zeuden eraikinaren atzeko zelaiak: beste mota bateko hilketa baten jakin-minak irtenarazi zituen eguzkitara. Colak, pertsona baten oina eta berna ikusi zituenean, barrura joan zen presaka, erdi balantzaka, enkargatuaren bulegora, hesiaz kanpotik emakume bat zegoela hilda hari esatera.

Cola gizon langilea eta formala zen. Beraz, enkargatuak poliziari deitu zion zuzenean, egia zioen ala ez ikus-tera irten gabe. Cola sartzen ikusi zuten beste harakin batzuk zer gertatzen zen galdetzera hurbildu ziren eta enkargatuak, marmarka, lanera itzultzeko agindu zien; kamioi hozkailuak nasetan zeuden, kargatu zain eta ez zegoen egun guztian txutxu-mutxuka egoterik puta bati zintzurra ebaki ziotelako.

Hori, jakina, susmo hutsa zen, Colak zapata eta oina besterik ez baitzion aipatu, baina inguruko fabriketako langile guztiek zekiten zer gertatzen zen paraje mortu haietan. Han hil baldin bazuten, segur aski, industrialdea Mestrerekin lotzen zuen errepidean ilunabarrean kokatu ohi ziren gehiegi margotutako gajo haie-takoren bat izango zen. Lanetik irtetean, etxeratu aurretik, zergatik ez gelditu errepide ondoan eta sasi batzuen atzean zabaldutako manta batera hurbildu? Une bat besterik ez zen, eta neskek ez zuten ezer askorik eskatzen, hamar mila lira besterik ez. Orain, gainera, Europa ekialdetik etorritako ilehori asko zeuden, gero eta gehiago, eta hain ziren pobreak ze, ez baitzuten kapusaia janztera ere behartzen, *via* Cappuccinako lilitxo italiarrek egiten zuten bezala. Izan ere, zer dela-eta agindu behar dio puta batek bezeroari zer egin edo zer jantzi behar duen? Segur aski, horrelako zerbait gertatuko zen; harroxko jarri zen nonbait, eta gizonak akabatu egin zuen. Asko geratzen ziren oraindik, eta hilero iristen ziren berririk frontieratik.

Poliziaren autoak gelditu ziren eta agente uniformatu bana jaitsi zen haietatik. Eraikinaren sarrera aldera jo zuten baina ez ziren ateraino iritsi, enkargatua irten baitzitzairen bila. Cola zetorren enkargatuaren atzetik. Garrantzitsu sentitzen zen egun hartan, bera baitzen guztien arretagune. Baina ondoez puntu bat ere eragin zion oin hura hala ikusi izanak.

–Zuk deitu al duzu? –galdetu zuen lehenengo poliziak. Aurpegi biribila zuen, izerditan bustia, eta tinko begiratzen zion enkargatuari, eguzkitako betaurrekoen atzetik.

–Bai –erantzun zuen gizonak–. Eraikinaren atzeko zelaian emakume bat dago hilda.

–Zeuk ikusi al duzu?

–Ez –erantzun zuen enkargatuak, eta paretik kendurik, hurbiltzeko keinua egin zion Colari–. Honek aurkitu du.

Lehenengo poliziaren buru-keinu bati erantzunez, bigarren autoko agenteak ohar-liburuxka urdin bat atera zuen txamarraren poltsikotik: liburuxka ireki, boligrafoari estalkia kendu eta orriaren gainean pausatu zuen.

–Nola duzu izena? –galdetu zuen lehenengo poliziak, kristal ilunak orain harakinari zuzenduz.

–Cola, Bettino.

–Helbidea?

–Zertarako duzu helbidea? –sartu zen tartean enkargatua–. Hor atzean emakume bat dago hilda.

Polizia enkargatuarengana bueltatu zen eta burua makurtu zuen pixka bat, betaurrekoen gainetik begiratzeko adina, ez gehiago.

–Emakume hori ez da inora joango, –eta berriro Colarengana zuzendurik, errepikatu zuen–: helbidea?

–Castello, 3453.

–Zenbat denbora daramazu hemen lanean? –galdetu zion poliziak, buruarekin Colaren atzeko eraikina adiearaziz.

–Hamabost urte.

–Zer ordutan iritsi zara lanera gaur goizean?

–Zazpi t'erdietan. Eguneroko orduan.

–Zer zenbiltzan hor kanpoan? –galdetzeko moduagatik eta beste poliziak erantzunak nola idazten zituen ikusita, Colak esango zukeen susmagarritzat hartzen zutela.

–Zigarro bat erretzera irten naiz.

–Abuztuaren erdian eta zigarroa erretzera eguzkitara? –esan zuen lehenengo poliziak, zorakeria edo, are okerrago, gezurra iruditu balitzaio bezala.

–Nire atsedean ordua zen –esan zuen Colak, haserretzen hasita–. Kanpora irteten naiz beti. Usainetik urrundu nahi izaten dut.

Hori entzutean, poliziak kiratsaz ohartu ziren eta eraikinaren aldera begiratu zuten. Liburuxka zeukanak ezin izan zuen ekidin sudurra zimurtzea, usaina heldu zitzaionean.

–Non dago emakumea?

–Hesiaz beste aldetik. Sasi batzuen azpian dago, horregatik ez dut ikusi hasieran.

–Zergatik hurbildu zara?

–Zapata bat ikusi dut.

–Zer esan duzu?

–Zapata bat ikusi dudala. Lurrean zegoen, eta gero bestea ikusi dut. Ongi zeudela iruditu zait, horregatik, hesi-zulotik atera eta zapatak hartzera joan naiz. Pentsatu dut, agian, balio zezaketela emaztearentzat–. Ez zen egia; saltzea pentsatu zuen, baina ez zion poliziari aitortu nahi izan. Garrantzi gabeko gezurtxo bat zen, inuxentea, baina beste gezur asko entzun beharko zituen poliziak artean, zapata haren eta hura jantzi zuen pertsonaren gainean.

–Eta gero? –xaxatu zuen lehenengo poliziak, Cola isildu egin zela ikusirik.

–Gero hona etorri naiz.

–Ez, hori baino lehen –esan zuen poliziak, buruari eraginez, pazientzia galtzen hasita–. Zapata ikusi duzunean. Emakumea ikusi duzunean, zer egin duzu?

Cola hizketan hasi zen, arrapaladan, lehenbailehen amaitu nahi balu bezala.

–Lurretik zapata bat jaso dut, eta bestea ikusi dut gero. Belarretan zegoen. Tira egin diot. Katigatuta zegoela pentsatu dut. Berriro tira egin diot eta libratu egin da –listua irentsi zuen, bi aldiz–. Jantzita zeukan. Horregatik ez zen askatzen.

–Denbora luzez geratu al zara?

Orain Cola zen polizia zoratu ote zen pentsatu zuena.

–Ez, ez. Lasterka etorri eta Banditelliri esan diot. Berak deitu dizue.

Enkargatuak buruarekin baietz egin zuen.

–Hildakoa zegoen tokian, hara eta hona ibili al zara?

–Hara eta hona?

–Ondoan geratu al zara, zigarroa erretzen? Ezer bota al duzu lurrera?

Colak ezker-eskuin mugitu zuen burua, bizkor eta indarrez.

Bigarren poliziak liburuxkako orriak pasatu zituen, eta lehenengoak esan zion:

–Galdera bat egin dizut.

–Ez. Ez dut ezer bota. Ikusi dudanean, zapatak bertan behera utzi eta hiltegitara itzuli naiz.

–Ukitu al duzu? –galdetu zion lehenengo poliziak.

Colak, begiak zabal-zabal eginda, harriturik begiratu zion.

–Hilda zegoen! Jakina ez dudala ukitu!

–Oina ukitu diozu –esan zuen bigarren poliziak, oharrak kontsultatuz.

–Ez diot oina ukitu –esan zuen Colak, nahiz eta ez zen jada gogoratzen ukitu zuen ala ez–. Zapata ukitu dut, eta oinetik atera diot. Zer arraiotarako ukitu behar nuen?

Poliziek ez zuten erantzun. Lehenengoak buruarekin keinu egin zion bigarrenari eta honek ohar-liburuxka itxi zuen.

–Ongi. Eraman gaitzazu hildakoa dagoen tokira.

Cola zegoen lekuan geratu zen, erroak bota izan baliu bezala eta buruari eragin zion, ezker-eskuin. Eguzkiak lehortua zuen ordurako haren mantaleko odola eta

euliak zebilzkion itzulinguruka. Poliziei begiratu gabe, esan zuen:

–Hor atzean dago, alambre-hesiko zulo handiaren kanpoko aldetik.

–Zuk eramatea nahi dut hildakoa dagoen tokira –esan zuen lehenengo poliziak.

–Esan dizuet non dagoen –erantzun zuen Colak, lehor eta ahotsa goratuz.

Poliziek elkarri begiratu zioten, Colaren ezezkoa esanguratsua izan zitekeela eta mereziko zuela gogoan hartzea iradokiz bezala. Hala ere, ezer esan gabe, Cola eta enkargatua zeuden lekutik aldendu eta eraikinaren kantoitik desagertu ziren.

Eguerdia zen eta eguzkia berun urtuaren pare erortzen zen polizien uniformeko plater-kapelen gainera. Haien azpian, izerdiak ilea blaitzen zien eta garondotik behera labaintzen zitzairen. Eraikinaren atzeko aldera iritsi zirenean, alambre-hesiko zuloa ikusi zuten eta hara abiatu ziren. Polizien atzean, hiltegiako kurririka eta marruen gainetik, giza ahotsak entzuten ziren eta agenteek alde hartara begiratu zuten. Hiltegiaren atzeko atean, bospasei gizon zeuden pilotuak, Colarena bezain mantal odolduekin. Poliziak ohi-tuak zeuden jada hartara eta oinez jarraitu zuten, beren bidean. Zuloaren parera iritsi zirenean, makurtu eta, bata bestearen atzetik, hesia igaro eta sastrakadira jo zuten.

Agenteak sastraketatik metro gutxira geratu ziren. Zer bilatu behar zuten jakinaren gainean egonik, berehala

ikusi zuten oina, azpi-adar artetik agerian. Bi zapatak ere hantxe zeuden, aurrean.

Bi gizonak astiro eta kontuz hurbildu ziren, lurrera sarri begiraturuz; putzu beltzak saihesteko, alde batetik, eta egon zitezkeen oinatzak ez zapaltzeko, bestetik. Lehenengo polizia zapaten ondoan belaunikatu zen eta sastrakak apartatu zituen. Hilotza ahoz gora zegoen, orkatilen kanpoko aldeak lurrean atseden harturik. Poliziak besoa luzatu zuen eta ile gabeko berna bat utzi zuen agerian. Eguzkitako betaurrekoak erantzi eta, begiak txiloturik, hanka luze eta gihartsuak ikusi zizkion; gero, belaur hezurtsuak zetozen eta, azkenik, kulero gorri parpailadunak. Soinekoa altxatuta zeukan –gorri distiratsua hura ere– eta aurpegia estaltzen zion. Polizia gelditu zen, une batez.

–*Cazzo!* –esan zuen, sastraka-adarrei jareginez.

–Zer gertatzen da? –galdetu zion lagunak.

–Gizonezkoa da.